

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

UZTAILEKO AISIALDIA

**Pozik herriko ume eta gazteak /8**

GIZARTEA

**Herriko zortzi gaixo Aozaratzan /9**

LEINTZ GATZAGA

**Eserlekuak Dorletako bidean/10**

DURANA  
ARETOA

PNV ESPAÑOL  
CARCELERO

ita  
19  
Cerrado

## ERASOA BATZOKIAN

Domekatik astelehenera bitartean eraso izan zuen Batzokiak. Espainiako bandera margotu zioten alde batetik bestera eta EAJren aurkako esaldiak idatzi.



**GUARDIAKOFARMAZIA**

UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. .... 943 79 21 99  
..... 943 79 85 83  
ITURRALDE, oporretan dago.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzaila	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**

Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzailak (Ohati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE**

**PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Oharra: Hiletetan 19:00etan izango dira mezak parrokian.

**SANTA RITA**

Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**AOZARATZA**  
Zapatuetan: 19:00

**MENDIOLA**

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Ez da mezarik esango

**OHARRAK**

**EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA SINFONIKOAREN MUSIKA EMANALDIA**

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak, 10. urteurrena bete duela ospatzeko, Euskal Herriko Gazte Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du zapatuan. Kirol etxean izango da 22:00etan, eta sarrerak salgai daude, zortzi euroren truke, Josun, Arlutzen eta Taberna Berrin. Bazkideek bost euro ordaindu beharko dute. Leihatilan, berriz, hamar eurotan salduko dituzte.

**EPEH PLATAFORMAKO KALE BILKURA**

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak kale agerraldia egingo du. *Kartzeletako bizi baldintzak errespetatzea!* lelopean batuko dira.

**ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETAN**

Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei, orokorrean, ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:

Tel.: 943 79 86 21  
Faxa eta erantzungailua: 943 77 18 54

**LORAMENDIRENAGENDA**


**SAN MIGEL JAIETARAKO DANTZA IKASTEKO ENTSEGUAK IRAILEAN HASIKO DIRA**

Loramendi euskara elkar-teak San Migel festetako *Beinke-Loramendi* dantza ikasteko entseguak antolatu ditu. Entseguak irailean egingo dituzte, egubakoitzero, 19:30ean. Jendearen parte hartzea garrantzitsua da; hortaz, anima zaitetzte! Informazio gehiago, betiko moduan, 943 77 09 70 telefonon.

**ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN**

**Uretako eski proban lan bikaina egin zuen Camilak**

Camila Jauregik, 15 urte besterik ez zuela, uretako eskian Espainiako Txapelketako hirugarren postu lortu zuen 1994. urtean. Txapelketa hura Kataluniako Castell de Fels herrian jokatu zen. Camila Jauregi askoz ere maila handiagoko kirolariek lehiatu zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Txistaria”*

1. *Txist* edo antzeko zerbait ahoskatuz eginiko deia.  
—*Atzian txistaria entzuan dot, zein ete zan, eta bera.*  
—*Pasatzerakuan txistaria ein ddotsat baiña ezta akordau.*  
2. Ijekzioa.  
—*Medikuak txistara txiki bat emun biotsu, baiña txiki-txikixa.*



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Mari Carmen Álvarez**  
16an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA  
**Javier Barbero**  
16an, 18 urte (hanka bakoitzean). Zorionak, maittia!



ARRASATE  
**Xabier Ramos**  
17an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Esther Cabero**  
18an, 21 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Iker Sagastizabal**  
20an, 23 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Mikel Egia**  
21ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA  
**Amaia Zugazagasti**  
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Maialen Ramos**  
22an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ramona Pérez**  
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Itsaso Barbero**  
23an, 26 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**URBALTZ TABERNA**

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**JOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak



Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**Mitartegarai**  
baseri turismoa

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51



**ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu aurten Portasoleko jairik ez egittie?**



**JOSE IGNACIO URIBE**  
Langillie

**MARI JOSE LEZETA**  
Langillie

**ADOLFO MANTECA**  
Langillie

**ROSI TENA**  
Langillie

**JOSU DAROCA DE LA FUENTE**  
Jubilaue

**CRISTINA REMEDIOS**  
Jubilaue

Neuri ez dust bat be inporta. Ze egoten zan, ba? Zezena, askoz gehixagurik ez. Ez dot uste giro haundirik egoten zanik; egixe esateko, leku danetako jaixek egin daue behera.

Pena emuten dust. Umien-dako ekintza asko egoten zan, eta Andramaixetan baiño animaziño haundixague, neure ustez. Iguel, Udalak hartu biherko leu-dae jaixen ardurie.

Txarto. Auzo horretan bizi dienendako eta lan egitten dogunondako, txarto. Neure ustez, Udala gehitxuago ahaleginddu biherko litzake eta laguntasun haundi-xague emun.

Oso txarto. Gaur bertan egon naz udaletxien protestie egitten. Ederto pasau izen dogu guk, eta aurten, faltan igerriko dittugu. Badakit lan haundixe dala, baiñe Udalaren laguntzaz...

Pena emuten dust, giro politte egoten zan-eta. Lehengo antolatzailiek kantsau egin die, ez? Hala eta be, uste dot gaztie hartu biherko leukiela jaixen ardurie; auzotarrak beti lagundu izen dogu.

Penie dala uste dot. Nik neuk ez dittut faltan igerriko, baiñe gaztie eta umiek, seguru asko, bai. Danon artien organizau biherko gittuke, auzotarrak, Udalaren laguntzaz.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK BIDE GURUTZEETAN EZ UTZI AUTORIK** Bidegurutzeetan ondo ikustea oso garrantzitsua da. Askotan autoak egoten dira behar ez den tokian aparkatuta bidegurutzetik atera behar denaren kalterako. Mitarte kalean dagoen honetan, esaterako, automobilaren muturra aurreraino atera behar da autorik datorren edo ez ikusteko, eta elkar jotzeko arriskua handia da gero! /M.A.

**ETABARRUAN...**

ASTEAN BEHIN / 4      ASTEAN BEHIN / 5      HURRETIK / 7

**Batzokiari eraso**      **Agur udaleku irekiei**      **Yera Sánchez**

Domeka gauean, Batzokiko fatxan Espainiako bandera margotu zuten, baita pintadak egin ere. Gaur, egubakoitza, bukatu dira udaleku irekiak. Orain, antolatzailiek balorazioa egiteko ordua da. Yera Sánchez izan da aurtengo Andramaixak iragarriko dituen Kartel Lehiaketa-ko irabazlea.

**ASTEKO DATUA**

**500**

**MILA EURO, AOZARZAKO LURREN LEHEN ORDAINKETA**


Astelehenean sinatu zuen udalak Euskadiko Kutzarekin Aozar-tza eta Larrinoko lurren erosket-a. Baita lehen ordainketa egin ere 500.000 euro. Guztira 1.500.000 euro ordainduko dizkio.

**BESTEKE SANA**

**“** Pertsona kanpoan egonda etxe barneko tresnen nondik norakoak ezagutzeko aukera eskaintzea da zerbitzu honen funtsa. Telefono bidez, etxetresnak martxan jarri, itzali, programatu eta azken finean kontrola daitezke, nahiz eta une horretan etxean ez egon. Horretarako, etxetresna elektriko guztiak ardatz bati lotuak daude, eta han dago barne eta kanpoaldearen arteko lotura. Bihotz horri guk **Major-Domo** deitzen diegu, eta sareari loturik dagoen edozein gailu edo funtzioerengan izango du eragina. Erabiltzailearentzat oso erraza izango da telefono bidezko aginduak ematea: etxetresnak kontrolatzeaz gain, segurtasun kontuak, argiak eta berogailua ere zaintzen ditu.

**EDORTA MENDIETA**  
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-07-05

**HERRITARREN BERBAK/ Lore Abarik**



*Nor litzateke jubilatatu edo E. Iglesias!*

**B** atzuek jadanik hartuta izango dituzue, eta beste batzuek laster hartzeko egongo zarete hain desiratutako oporrak. Urte osoa itxaroten egon ondoren, azkenean heldu dira. Orokorrean, jende guztia egoten da oporrak hartzeko irrikatan: ikasleak, langileak... denok, jubilatua izan ezik, hauek, behin jubilatuz gero, ongi merezitako opor luzeak bizitzen hasten baitira.

Baina zergatik dira hain desiratuak oporrak? Ba, ez dakit; ni ez naiz psikologoa, baina gain begirada bat botata, zenbait aukera bururatzen zaizkit, eta aukera guztiak lanarekin lotutakoak dira: jendea ikasi duenarekin zerikusirik ez duen lanetan dabil, askotan gustatzen ez zaion lanetan, ilusiorik eta motibaziorik gabe, estresatuta, lanean ordu pila bat sartzen... Nik uste horregatik datorrela deskonektatzeko gogoia, lasai egoteko nahia, oporrak edukitzearen behar izugarri

hori. Gero, bestalde, badaude Enrique Iglesias abeslari famatua bezalako fenomenoak, 35 ordu lan egitea oso gutxi iruditzen zaio, eta berak bikoitza lan egingo lukeela esaten du. Suposatzen dut bere kasuan hori esatea normala

**“Orokorrean, jende guztia egoten da oporrak hartzeko irrikatan: ikasleak, langileak... denok, jubilatua izan ezik”**

dela, gustatzen zaizuna egiten eta nahi duzuna kobratuz gero... “Es una experiencia religiosa”... Ez dago batere gaizki!

Baina Enrique Iglesias ez garenok, egunero egiten dugun bizitzari buruz meditazio bat egitea ez litzateke batere ideia txarra. Eguneroko bizitza ere disfrutatzeke orduekin betetakoa izan beharko litzateke, lana egitea eta pozik bizitzaren artean oreka bat bilatuaz.

Baina beno, oporrak gainean, denetarako denbora dago, pentsatzeko, atsedean hartzeko eta batez ere, eta ahal den heinean, ederto disfrutatzeke.

Opor on onak pasatu!





M. J. Aretxaga

## Udako kontutxoak

Uda aldera berriak gutxitu egiten dira. Hala ere, oraindik badaukat zer kontatua. Xiberoa Garatzen egitasmoa orain hiru hilabete inguru aurkeztu zuten herrian Zuberoari laguntzeko. Beste ekintza batzuen artean zozketa egin zuten, eta dagoeneko badakigu nor den irabazlea. **Maritxu Viteriri** egokitu zaio saria. Nekazal turismo etxe baten aste bukara. Ze ondo. Ea hurrengo baten neuri ere zer edo zer tokatzen zaidan, erririka erosten ditut-eta. Beste txutxumutxu bat ere heldu da nire belarrietara; **Lucrecia** abeslari kubatarraren bideokliplean **Josu Otxoa** agertzen da. Gainera, Bilboko metroan grabatuta dago. Ezagutu gura baduzue, ondo begiratu, ez da oso samurra eta. Ea udako abestian gure modeloa ikusten duzuen.

*M. J. Aretxaga*

**ERASOA/** EAJren kontrako beste pintada batzuk duela aste batzuk agertu ziren herrian

## Espainiako bandera margotu eta pintadak egin zituzten Batzokian

MIRARI ALTUBE

Joan den domekatik astelehenera bitartean, Durana kalean dagoen Batzokiko fatxada pintadaz beteta agertu zen. Espainiako bandera margotu zuten, aldenik alde, eta EAJren aurkako esaldiak idatzi zituzten gainean. Eta margo larua eta gorria bota zuten.

Margo larua eta gorritz egindako pintadaz beteta agertu zen Batzokia domeka gauetik astelehenera bitartean. EAJ alderdiaren aurkako hainbat esaldi ere idatzi zituzten ezezagunek.

### GIROA, BERO

Orain dela aste batzuk, EAJ alderdiaren aurkako hainbat pintada egin zituzten herrian. Uztailearen 9an, berriz, Zuhaitz Errasti aretxabaletarra Auzitegi Nazionalera joan zen deklaratzera. Ertzaintzak maiatzaren 30ean pintadak egiten zebilelako atxilotu zuen Zuhaitz, baina orduan ez zioten deklaraziorik hartu, eta uztailean Madrilera joan beharra izan du.

Badirudi horrek guztiak giroa berotu duela herrian, eta azken ekintza Durana kaleko Batzokia margotzea izan da. Euskal Herriko beste leku batzuetan ere erasoak izan ziren gau berean.

### GARBIKETA LANAK MARTITZENEAN

EAJ alderdiak astelehenean egindako Gobernu batzordean erasoren berri eman zuen. Gobernu batzordeak pintadak lehenbaile-



MIRARI ALTUBE

Margo gorri eta laruaekin zikinduta eta pintadaz beteta agertu zen Batzokia.

hen garbitzeko erabakia hartu zuen, eta martitzen eguerdian ekin zioten garbiketa lanari. EAK Herriko plazan duen egoitza ere margo larua eta gorritz zikinduta egon da azken asteotan. Hori garbitzea ere erabaki zuten.

Martitzen arratsaldean, bestealde, EAJ eta EA alderdiek batzorra egin zuten, Batzokiari egindako erasoaz aztertzeko.

### ERASO BAT BAINO GEHIAGO

Batzokiak lehen ere hainbat eraso izan ditu. Sarri agertu izan da pintadaz beteta eta margotuta, baina larriena 1997ko urrian izan zuen, molotov koktel bidez erre egin zuten-eta. Erasoa orduko Udaltzarrean ere eragina izan zuen, HB Udaleko Gobernu batzordetik bota egin zutelako, ekintza ez salatzearen.

## LABUR

### Urbaltz taberna eta elkarteko kontuak blokeatuta

Baltasar Garzón epaileak dagoeneko abian jarri du bere erabakia, herriko taberna eta elkarteei kontuak blokeatzea. Euskal Herrian hainbat izan dira blokeatu dituenak eta gure eskualdean gehientsuenak, baita Urbaltz taberna eta elkartekoa ere.

### Aurten ez dute Portasolen jairik ospatuko

Uztailearen erdi aldera Aretxabaleto Portasol inguruan San Lorentzo jaiak antolatuta izan ditu gazte talde batek urtero. Baina aurten ez da jairik egongo. Ez da talderik sortu jaiak antolatzeko, eta bertan behera geratu dira. Batek baino gehiagok igarriko ditu faltan San Lorentzo jaiak.

### Herriko hainbat misiolari etorri dira udan, bisitan

Uda guztiondako da opor garaia, eta kanpoan dauden erlijioso eta misiolariak ere etorri izan dira bisitan. Ez dira urtero etortzen; aurten, esaterako, Inazio Galdos eta Juan Jose Olabe ditugu gure artean. Inazio Indian dago, Gujerat lurraldean, eta Juan Jose, berriz, Venezuelan.

**Jauregi Okindegia**

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**MAITE**  
ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05  
ARETXABALETA



**Hirusta**  
Zatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA



**TABERNA**

**ARLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

**J.J. IRURE**  
ITURBENTZUA

URA GASA KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187



**ASIALDIA/** Gustura ibili dira herriko ia berrehun gaztetxo aurtengo udaleku irekietan

# Gaur esan diete agur ume eta gazteek udalekuei

MIRARI ALTUBE

Uztailaren 1etik 19ra bitartean herriko ume eta gaztetxoak udaleku irekietan ibili dira. Ekintzak betetako egunak izan dira, aspertzeko asti barik: eskulanak, jolasak, irteerak, egun bereziak... Denetarik egin dute, nahiz eta eguraldiak ez dien askorik lagundu.

Gaur esan diete agur udaleku irekiei Aretxabaletako ume eta gaztetxoek Herriko plazan egin duten jaialdiarekin. Ekintzak betetako ia 20 egun izan dira, eta, jolas egiteaz gainera, elkarrekin egoten ere ikasi dute.

## BURUKOMINAK ETA ILUSIOAK

Hiru urtetik hasi eta hamabi urte bitarteko ia 200 ume eta gaztetxo ibili dira aurtengo udaleku irekietan. Guztiak zaintzeko eta ekintzak behar diren bezala antolatzeko, 26 begirale izan dituzte.

Udaleko Kultura Sailak antolatu eta aurrera errotan ditu udaleku irekiak. Aurtengoak hamabost urte bete ditu. Antolatzailerik burukomin bat baino gehiago eragiten die, baina urtero anto-

*Burukomin bat baino gehiago eragiten die, baina urtero antolatzen dituzte, ilusioarekin*

*Beti izaten dira arazoak, baina giro ona nagusi den lekuan berez konpontzen ei dira*

latzen dituzte ilusio eta poz handiarekin. "Begiraleek lan handia egin dute gaztetxoek ondo pasa dezaten eta antolatutako ekintza guztiak ondo atera daitezten", dio Inma Miguel Kultura teknikariak. Beti izaten da arazoren bat edo beste; azken baten, 200 gaztetxo dira, baina giro ona nagusi den lekuan arazoak berez


konpontzen ei dira. Gaztetxoak ere bat datoz begiraleen iritziarekin "etxean aspertuta egon beharrean lagun artean egoten gara eta ederto pasatzen dugu".

## ALDAKETAK DATORREN URTERAKO

Datorren urteari begira hainbat aldaketa egingo dituzte antolatzailerik. Ume txikiendako -hiru eta lau urtekoendako-, esaterako, ekintzak goizetik bakarrik jarriko dituzte: "Txikiak asko nekutzen dira, eta arratsaldeetan ezin izan dugu edozein ekintza egin, asko logurak jota egoten zelako", dio begirale batek. Gainera, gurasoak ere arduratuta egon ei dira eta aurtengo, asko, umeari jarraiki ibili dira. Hori dela eta, goizez bakarrik izatea aztertuko dute aurtengo balorazioa egiterakoan. Datorren astean izango da hori, udalekuetako arduradunak horretarako bilduko baitira.

Uztailan, aspertu beharrean, ederto pasatu dute aurtengo udaleku irekietan. Datorren urtean ere herriko ume eta gazte guztiak, baita begiraleak ere, animatu gura dituzte Kultura Saileko antolatzailerik.

## TXUTXUMUTXUA



## Ludotekari azken ukituak irailari begira


Ludotekak Gernika plazan izango du egoitza irailetik aurrera. Egunotan azken konponketak egingo ari dira, barrualdea margotzen eta egokitzen, hain justu. Arte Ederretako ikasketak egin dituen Iker Iglesiasek du horren ardura, eta dotore utzi gura du irailerako. Lau eta hamabi urte arteko umeek egonleku polita izango dute datorren ikasturtean, handia, berria eta txukuna. Izena ere izango du, Algara Ludoteka; izena Jone Pagaldaik asmatu du. /M.A.

# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-  
ARMAIRU  
AUKERA  
ZABALA**

**Eta mota guztietako atek.**  
Informa zaitetz!



**Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak**

**Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa**



**AZKARATE  
AROSZTEGIA**

Tellería, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24

**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA





MENDIA

## Leixargarateko aterpetxea, aste bukaera gehientsuenetan beteta

Aterpetxe apala da, baina herritarrek gustuko dute eta sarri-sarri joaten dira

MIRARI ALTUBE

Degurixa eta Alabita bitartean dago Leixargarateko aterpetxea. UDA elkartearena da, baina Murruxiko Mendizale Elkarateak dauka aterpetxearen ardura. Azken urteotan izugarritzko arrakasta izan du, eta aurten ere beteta egon da aste bukaera gehientsuenetan.

Aurten, aurreko urteetan moduan, aste bukaera gehienetan egon da beteta Leixargarateko aterpetxea. Koadrilak eta familiak egon dira, gehienbat, eta abuztuan ere herritar bat baino gehiago pasatuko da handik.

### ATERPETXE APALA

Hogeita hamaika urte beteko ditu irailean Leixargarateko aterpetxeak. Arrasateko Besaide Elkartearekin batera eraiki zuen UDAk, eta azken urteotan Murruxiko MEko Imanol Etxabe da arduraduna. 1996ko abenduan, 25. urteurreneko ospakizunak egin zituztenean, eguzki plakak jarri zizkioten txabolari, eta, ordutik hona, argindarra dauka. Gainon-



Mendian ibilalditxoa egin eta gaua pasatzeko leku aparta da Leixargarate.

tzekoan, berrikuntza gutxi egin dizkiote, nahiz eta Imanol aterpetxea berritu guran dabilen.

Aterpetxe apala da Leixargaratekoa, baina gustuko dute herritarrek, eta, gazte zein nagusi,

sarri-sarri joaten dira; ikusi besterik ez dago eskaera orria. Txanda hartzeko, Murruxikoko lokalerara joan besterik ez dago, eguaztenetan, 18:30etik 19:00etara bitartean.

TRIALSINA

## Markel Uriarte bigarren geratu da Trialsineko Iparraldeko Txapelketan

Uztailaren 6an egin zuten Trialsineko Iparraldeko Txapelketako azken proba. Kantabriako Potes herrian izan zen, eta Markel Uriarte larrinoarrak alebin mailan hartu zuen parte. Txapelketako gainarako hiru probetan moduan, hor ere bigarren postua eskuratu zuen; hortaz, sailkapen orokorrean ere bigarren geratu da. Oso pozik dago Markel lortutako emaitzarekin, eta udazkenean jokatuko den Euskadiko Txapelketan ere antzeko emaitza lortu gura luke. Andramaixetan trialsin erakustaldia egingo du herrian.

MENDIA

## Igor Guenetxeak Peruko Huascaran mendia igo gura du abuztuan, beste bi lagunekin

Igor Guenetxea arkarazoarra eta beste lagun bi, tartean, Leire Ezpeleta arrasatearra, Perun dagoen Huascaran mendia igotzera joango dira. Uztailaren 24an irtengo dira Euskal Herritik eta abuztuaren 29an etorriko dira bueltan. 6.768 metro garai den mendia arazorik ez ematea espero dute, baina igotzeko oso gaizki dagoela ikusiz gero, bertan behera utzi eta Peru hegoaldera jotzea daukate erabakita. Igorren esanetan, hara egokitzeak emango dizkie arazo handienak.

PIRAGUISMOA

## 'Iriban'-en piraguak hartu eta inguruko urtegieta joan behar da piraguan ibiltzera

Aurreko astean ere esan genuen Urkuluko urtegian ezin daitekeela piraguan ibili. Hala ere, piraguismoan federatutakoak Iriban baserrian dauden piraguak hartu eta inguruetako urtegieta joan daitezke. Baserriko giltza Azkena tabernan egoten da. Iriban Cabero arduradunaren esanetan, aurten iaz baino mugimendu gutxiago egon da, eguraldiak ere ez duelako askorik lagundu.

# IBARRA JATETXEA



# BERRIZ ZUEKIN

Araba ibilbidea 29  
Aretxabaleta  
943 79 70 60

Menua eta karta



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

EDWIN VITOVIZ

IKASLEA / KOLONBIA (BOGOTA)

“Oso herrialde antolatua daukazue; Kolonbian oso neurrigabeak gara”

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela urte bi etorri zen Edwin Vitoviz Kolonbiako Bogota hiritik Arrasatera. Telekomunikazio ikasketak egitera etorri zen. Orain, ikasketak bukatuta, Kolonbiara bueltatzeko aukera izan du. Baina ez da itzuliko: “2000. urtean etorri nintzen hona. Kolonbian nengoela, ikasketak nire herrialdetik kanpo egiteko aukera suertatu zitzaidan, eta ez nuen bi bider pentsatu beharrik izan. Orain, Telekomunikazio eskolak amaituko ditut, eta Ingeniaritza egiten hasiko naiz; hortaz, Arrasaten geldituko naiz beste denboralditxo batez”. Edwinen esanetan, Kolonbian ez dago Euskal Herrian besteko lan eskaintzarik. Kolonbian lan ona lortzeko lehiakortasun handia dago eta ikasketek berebiziko garrantzia dute.

Azkeneko bi urteotan, Telekomunikazio eskolak jasotzeaz gain, inguruko herriak bisitatu eta jendea ezagutu du Edwinek: “Eus-

kaldunak oso atseginak eta zintzoak zarete. Gainera, oso herrialde antolatua daukazue. Kolonbian, berriz, oso neurrigabeak gara. Hemen edozein lekutara sartzeko ilara

“Batez ere, bihozberagoak izaten ikasi behar dugu kolonbiarrok”

txukunak egiten dituzue; Kolonbian, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen; guztia da desordena han. Oraindik gauza ugari daukagu ikasteko; batez ere, kolonbiarrok bihozberagoak izaten ikasi behar dugula uste dut.

Etorkizunean Edwinek Kolonbian bizigura du. Baina hori lanaren arabera izango da: “Lana non aurkitu, hantxe izango naiz ni”, dio.



HURRETIK



Yera Sánchez

Marrazkilarixe

Yera Sánchezek Andramaixetako Kartel Lehiaketie irabazi dau. Atsalde baten egindako marrazkixe zala esan dusku. Ez gara harritzen. Yera Sánchez artista gartzie da.

Espero zeuen Andramaixetako Kartel Lehiaketie irabaztie?

Ba, egixe esanda, ez.

Ze dala-eta egin dittuzu mosu abstraktuek?

Arte Ederrak ikesten nabil, eta han ikettakuen influentzia da. Gaiñera, hola, ikutu modernuague emuten dutziet.

Kartelak kolore bizixek dittu. Holaro koloriek gustetan jatzu?

Bai.

Ze egingo dozu irabazittako diruaz?

Oporretan gastauko dot dana!

Ze espezialidade zabitz ikesten?

Ikus-entzunezkue.

Zelako pelikulek gustetan jatzu?

Danetarikuek, baiñe oso komertzialak dienak ez jat askorik gustetan. Azkenaldixen zine esperimentalak ikusteko aukerie euki dot, eta asko gustau jat.

Gogoko zine zuzendari bat?

Ezin neike bat aukeratu; gaiñera, oin bat esango dot eta bixer beste bat gustauko jat; orduen, ez dot izenik emungo.

Zein izengo da udako kantue?

Torero edo Las Ketchup taldiarena. Kantu zatarren bat izengo dala, behintzet, seguru!

Oporretan, nora?

Lelengo 15 egunetan Benidorm aldera fango naz, eta gero, ikusi egin biher.

Ze jai ez dozu iñoiz be galtzen?

Andramaixek.

Urtaro bat?

Udazkena.

Zela ikusten dozu zeure burue hamendik 20 urtera?

Ez dakit, auskalo!

A.L

NIREBIDAIAHURA / Eider Otxoa

Txekiar Errepublika / 2001eko abuztua

Gazte askok egiten duten moduan, Eiderrek ere bidaia aukeratu aurretik oporretarako zuen aurrekontuari begiratu zion. Hainbat aukera izan zituen esku artean, eta azkenean, neurrira egindako bidaia topatu zuen. Eider eta mutil-laguna Txekiar Errepublika eta, batez ere, hango hiriburua, Praga, ikustera joan ziren iaz, udan.

Txekiar Errepublika bisitatzeko aste bi eskas izan zituzten, eta horrek nahiko mugatu zien bisitaldia: “Bidaia egin aurretik, Interneten Txekiar Errepublikaren eta Pragaren gaineko informazioa eskuratu genuen. Bagenekien gauza ugari zeudela ikusteko, baina guk hamahiru egun besterik ez genuen. Horregatik, eta egun guztiak ondo aprobetxatzeko, automobil bat errentan hartu genuen”. Txekiar Errepublikara heldu, eta lehenengo lau egunak Pragan eman zituzten. Hango giroak txudituta utzi zuen Eider: “Bagenekien Praga abuztuan jendez gainezka egoten zela, eta hala da; kaleetan sanferminetan baino jende gehiago zebilen. Hala ere, izugarri gustatu zitzaidan. Kaleko giroa izugarria da, horrenbeste gauza daude ikusteko! Bost metro egiteko ordubete behar izaten genuen”.

Bidaiarekin jarraituz, Txekiar Errepublikako hegoaldea eta iparraldea bisitatu zituzten. Bi aldeok oso desberdinak dira, Eiderren esanetan: “Hegoaldea oso lasaia eta polita da; iparraldea, berriz, industriak okupatu du, eta hori nabaria da. Iparraldea nahiko leku gogorra da. Giroa, esaterako, askoz tristeagoa da. Gainera, handik, nazien garaiko kontzentrazio-esparru bat ikusi genuen, eta hura ere ez zen oso alai izan”. Hala ere, tristurak albo batera uzteko eta bidaia ondo bukatzeko, bikotea Pragako kaleetan murgildu zen berriro.

A.L



Pragan antzinako eraikinak eta modernitatea uztartzen dira.

G U R E A

taberna  
jatetxea

Durana kalea  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 20 64

Martín  
ESTOUBERT-RODRÍGUEZ

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETAKA

ZARAIA  
TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95  
MANTEKA ANAIK

OSKAR  
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETAKA

PIENSO  
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETAKA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56



# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 19a / 89. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Udalekuak amaitzear, pozik daude herriko gazteak

AINTZANE GARDOKI

Hemeretzi begiraleren ardura-pean hiru eta hamabi urte bitarteko 147 ume ari dira parte hartzen Udaleku Irekietan. 13 urtetik gorakoan artean, berriz, eta Gaztekantoi programaren barruan, beste 26 gaztek ekintza eta irteera ugari egin dituzte.

Uztailan, umeen eta gazteen aisialdiari erantzuna emateko asmoz, Udaleku Irekiak eta Gaztekantoi izan dira aukeran. Udaleku Irekietan zortzi talde izan dira. Horiek, goiz eta arratsalde, egunero bost ordu izan dituzte gura beste jolas egiteko. "Egubakoitzetan mendira joan gara, eta sei urtetik gorakoak barruko igerilekuan ere egon dira. Txikienek, berriz, eta izan dugun eguraldi kaskarrarekin, ez dute hain gustukoa duten urarekin disfrutatzerik izan", esan digu Udaleku Irekietako arduradun Ixone Iregik. Udalekuak amaitu aurretik gauzak zelan doazen ikusteko, ebaluazioa egin dute begiraleek: "Aurreneko balorazioa ona da, orokorrean. Umeak pozik daude", dio Ixonek.



Uztailaren 24 arte izango dute txikienek ondo pasatzeko aukera.

### 26 GAZTE GAZTEKANTOIN

Herriko gazteak ere ez dira geldik egon: "Herriak ez du aukera askorik ematen. Urtero gauza berberak egiteko arriskua dakar horrek. Hiru egun Urdaibain eman ditugu eta beste hiru Urbian. Gazteok

horrelako irteerak behar dituztela adierazten dute behin eta berriro", dio Gaztekantoi arduradun Olatz Pagaldaik. Datorren astean ere, eta ezuste bat baino gehiagorekin, ondo pasatzeko aukera izango dute denek.

ROSA LASAGABASTER / MENDIZALEA

*"Helmugan emozio handia sentitu nuen"*

Rosa Lasagabasterrek Zegama-Aizkorri Mendi Maratoioan hartu zuen parte orain dela aste bi. Maratoia bukatzeko helburu xumearekin joan zen. Baina Rosak, proba bukatzeaz gainera, emakumezkoetan lehenengo saria lortu zuen.

Dagoeneko ia hamabost egun pasatu dira maratoia korritu zenuenetik. Zer moduz zaude?

Fisikoki primeran nago. Maratoia korritu eta bi egunetara hasi nintzen berriro ere korrikan, eta orain, dagoeneko, ohiko bizimodua daramat. Oso ondo errekuperatu naizela esan dezaket. Emozionalki, berriz, oraindik nire garaipena ezin sinistu nabil. Ezusteko paregabea izan zen, eta oso pozik nago.

Zelan bururatu zitzaizun horrelako proba gogor baten parte hartzea?

Kasualitatez; orain dela lau hilabete, Aizkorriara joan nintzen bueltatxo bat ematera eta bidea markatuta zegoela ohartu nintzen. Kuriositatez, marka horiek zertarako ziren informazio bila



hasi eta, asko pentsatu barik, proba egiteko apuntatu nintzen.

Zer sentitu zenuen helmugara iristean?

Ikaragarriko emozioa. Helmugara sartu baino lehenago dagoeneko hunkituta nindoan. Eta helmuga pasatutakoan, poza eta emozioa, dena pilatu zitzaidan.

Mendizalea izanik, gomentatu ibilbide bat.

Ikerlanen hasi eta Untzilla, Isasmendi eta Kurtzetatik bueltan Mazmelara ibilbide polita dago. Nik neuk sarritan egiten dut bide hori.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz pasatzen ari zarete? Zer duzu atsegin, eta zer ez?



IÑAKI OYANGUREN  
Gazt. begiralea



AINHOA ALTUNA  
15 urte




IBONE AREXOLALEIBAR  
15 urte



ASIER ARZABURU  
5 urte



MARTA GARCÍA  
5 urte



BEÑAT ARRIETA  
6 urte

Bigarren urtea dut, eta gustura nabil. Alfer samarrak ere badira gazte batzuk, baina, orokorrean, gazteen parte hartzea ona da. Nahiz eta eurek protesta ere egin, pozik zabilzate, ezta?

Bai, pozik gaude. Irteerak dira gehien gustatzen zaizkidanak; leku berriak ikusten ditugu eta jende berria ezagutzen dugu. Gaztekantoi luzeagoa izan beharko luke.

Oso gustura nabil, baina egun gutxi dira. Hilabete osoko Gaztekantoi egingo nuke. Aurten, janari kontuetan eskas ere ibili gara... Begiraleak, errepikatze modukoak.

Igerilekura joatea eta Ura-ren Eguna dira gehien gustatzen zaizkidanak, baina eguzkirik ez dagoenez, ez dugu horrelakorik egin ahal izan. Aitorrekin eta Iratirekin asko jolasten gara.

Gauza asko egiten ditugulako gustatzen zaizkit udalekuak; ogia egin genuen, eta, bestetik, zapaburuak harrapatu ditugu. Dantzan egitea da gutxien gustatzen zaidana.

Bide berritik egindako ibilaldia gustatu zait gehien, marigorrigo eta barraskilo polit bana harrapatu nituelako. Baina kakalardo bat harrapatzen ez zidaten utzi Aitorrek eta Iratik.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**AXTROKI**

Oporrak hartu aurretik herriko euskara elkarteak barne antolatze lanetan murgilduta dabil; ikasturteko kontuen gainbegiratu egin du eta bazkideen datu basea eguneratzen dabil.

Opor osterako ere, eta esku hutsik itzuli gura ez duenez, udazkenean izango diren ekitaldiak prestatzen dabil elkarteak. Esan digutez, irailean antzerkia eta urrian kontzertu bat, behintzat, izango dira.



**Herriko gaixoak Aozaratzan**

Maritxu Alegriaren ardura-pean, herriko zortzi gaixo psikiko astea pasatzen dabilta Aozaratzako Abade Etxean. Joan den zapatutik etzi arte.

Parrokiako Osasun Pastoralak duela zortzi urte hasi zen gaixoendako astebeteko egonaldiak antolatzen. Egondialdiak helburu nagusi bi ditu: "Batetik, gaixoen familiei astea lasai, ardura barik, igarotzeko aukera ematea; eta bestetik, gaixoendako ere ona izaten da. Euren arteko harremanak sendotzeko beharra ere izaten dute eta askotan", esan digu Maritxuk. Lau gaixo goizetan lanera joaten dira, egunero, baina Aozaratzara itzultakoan, beste lagunekin batera gura beste margotu, jolas egin, paseatu eta dantzan egiteko aukera izan dute. /A.G.

**LABUR**

**Joxerra Zubizarreta da Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidente berria**

Gipuzkoako Ikastolen Federazioaren gestio plana, plan estrategikoa eta plan integrala bideratzeko kudeaketa lana egitea izango da Joxerra Zubizarretaren eginbehar nagusienetakoa.

Gipuzkoako ikastolen kezka jaso eta kezka horiei irtenbidea ematea ere bere ardura-

pean izango du Zubizarretak.


"Joan den maiatzean, Ikastolen Federazioa eta Partaide erakunde bakarrean batu ziren. Horrek dakarren guztia lantzea eta garatzea ere gure esku izango dugu", gaineratu digu Joxerrak. Almengo lana kargu berriarekin tartekatuko du.

**Laurogei urtetik gorako eskoriatzarrek Estibalizko basilika bisitatu dute**

Lauretan herrian autobusa hartu, eta 80 urtetik gorako 40 eskoriatzar joan ziren Estibalizko inguruak eta Amabirjina ikustera. Gero, Ozaetan afari-merienda egin zuten. Olazar elkarte-ko batzordeko zortzi kideak ere lagun izan zituzten herriko nagusienek. "Oso ondo pasatu genuen

arratsaldea", esan digu batzordeko kide Mari Carmenek. "Estibalizen fraide batek ederto azaldu zizkigun Estibalizko gorabeherak. Amabirjinari kantatu bat abestu eta gero, Ozaetara joan ginen. Jendeari otordua ere izugarri gustatu zitzaion". Iluntzean itzuli ziren etxera.

**BEIRALAN KRISTALDEGIA**




- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

*Aretz*

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABAleta



**ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA**

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**




TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

**CIPRI'S PUB**



Aranburuzabala 8  
ESKORIATZA



ELKARRIZKETA



A.G.

**MATILDE ARRESE, MARTZELIN PLAZAOLA ETA MARI CARMEN ARANA**

*“Dorletatik etorrita gaude hankak lokatzetan ondo zikinduta ere”*

AINTZANE GARDOKI

**M**atilde, Martzelin eta Mari Carmen, euria egin nahiz elurra egin, egunero-egunero joaten dira Dorletara. Ehunka kilometro bakarrik ez, milaka egin dituzten galdetzerakoan, irribarra irteten zaie hirurei.

**Zenbat urte Dorletara joaten?**

**M.C.:** Bizitza osoa. **Matilde/Martzelin:** Kalera bizi izatera etorri, eta bidea egin zuten unetik hona... Beti joan izan gara.

**Izan ere, egunean buelta bakarrarekin ez zarete konformatzen?**

**Matilde/Martzelin:** Lehen, askoz gehiago egindakoak gara. Gu, orain, egunean behin joaten gara, normalean. Mari Carmen dabil gogor, egunean hirutan edo lautan joaten da-eta. **M.C.:** Herriko beste bi lagunekin Dorletara joateko egunean hiru hitzordu ditut jarrita; goizean, eguerdian eta gauean, 21,30ean, azkena. Arinarin joaten gara, e! Arratsaldeetan Matilderekin eta Martzeline-

rekin lasaiago joaten naiz, eta gaur bertan, Landan ibilaldi luzea ere egin dut gizonarekin batera.

**Gora eta behera kilometro batzuk egin dituzue, ezta?**

Bai, egindako guztiak bata bestearen atzean lotuz gero, kate luzea egingo genuke, bai horixe!

**Horrenbeste urtean, Dorletako bidean makina bat gauza ikustea tokatuko zitzaizuen.**

**M.C.:** Ikusi horrenbeste ez, entzun gehiago. Azkena, astean bertan: gizakume batek esan zigun, irribarra musuan, Amabirjinari ez diogula askorik errezatzen. Erantzun nion goranzkoan errezatzen joaten garela eta beheranzkoan, berriz, kontu kon-

tari etortzen garela. Ze demontre!

**Baina kontuak kontatu eta berrikeretan egiteko astirik badaukazue?**

**Matilde/Martzelin:** Guk bai, orain, trankil-trankil joaten gara-eta. **M.C.:** Batzuetan, denbora askorik ez da izaten. 30 minutuan egiten dugu joan-etorria sarri. Isilik eta hankak arin behar dira!

**Orain, eserlekuak ere jarri dituzte?**

Oso ondo datoz. Hiru Dorletan eta beste bi bidean jarri dituzte. Bidean gehiago jartzeko eskaera egin dio Victoriak alkateari. Hark agindu egin ei dio! Guk lehen eskatutakoak jarri dituztelako eskerrak eman gura dizkiogu herriko Udalari.

**Geriza eta gaztaina ederrak egoten dira bidean.**

**Martzelin:** Baita negu-makatzak ere! Behin, zuhaitzera joan eta makatzak hartu genituen. Mari Carmen eta biok lokatzetan goraino sartu ginen, Matilde bide ertzean zain... Baina makatzek bekatua zuten nonbait, zimeldu egin zitzaizkigun-eta ganbaran.

*“Eskatutako eserlekuak jartzeagatik eskerrak eman gura dizkiogu Udalari”*

LABUR

**Andramaixak prestatzeko lanetan parte hartzen ari dira herritarrak**

Duela hilabete hasi ziren herriko jaiak prestatzeko batzarrak egiten udaletxean. Amaia Olabe Kultura zinegotzia pozik dago herritarrek eman duten erantzunarekin. Irailaren 6tik 9ra bitartean ospatuko dituzte aurtengo Andramaixak. Eta Amaia Olabe aurreratu digunez, izango da Andramaixetan berri-

sunik: “Barikuan, suzko erru-berak izango dira, esaterako; domekan, berriz, Amabirjinaren Eguna eta Otxandiokoaren Eguna izango da. Jaietako domekan ohikoa den Txirrindulari lasterketa zapatara pasatu dugu. Umeen Eguna eta herri bazkaria ere zapatuan izango dira”, gaineratu digu Amaia Olabe.



**Herritar askok hartu zituzten loreak**

Berrehun lore banatu zituen Udalak herritarren artean. Gernioak, sesamoak, begoniak eta salbiak banatu zituen. Familia bakoitzeko lau lore, mota bakoitzeko bana, hain justu ere. Eskaintza horrek herriko balkoiak eta leihoak apaintzea du helburu. Gero, herriko Andramaixetan 90 euroko saria emango diote herriko balkoi edo leiho ederrenari. Epaimahaia herriko elkarteetako kideek osatuko dute. GUREL eta Toki Eder elkar-teetako, Gatzis gazteen taldeko eta Sorginak taldeko ordezkariak osatuko dute epaimahaia. /A.G.

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

ESKORIATZA  
ERRETEGIA  
MENDIOLA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



# fordfocus

aire egokituarekin

**12.000€-tik aurrera**



Goatzeko pentsatuak,  
irauteko eginak



Gomendatutako salneurria. Focus Intro 1.4 75 ZP. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne.  
Prever Gasolina Plana barne. Baliozkoa 2002ko uztailearen 10a arte.

## MUGARRI AUTOAK


Araba etorbidea z/g

ARRASATE

Tel.: 943 797 564

902 442 442  
[www.ford.es](http://www.ford.es)





Alboka  
Anna's  
Asensio  
Haurrak  
Iriarte  
Leintz Rosi  
Mari Karmen  
Pagaldai opariak  
Zare  
Zubia

# BEHERAPENAK